



## HIZKUNTZA POLITIKA

NEIKERek, geure gizartea elebiduna dela kontuan hartuta, euskara eta gaztelania hizkuntza ofizial bien normalizazioaren alde lanean jarraitzea du erronka nagusia. Era berean, zientzia eta ikerkuntzan hegemonikoa den ingelesarekin elkarkidetzatza orekatua izatea bilatu nahi du. Gainera, erakunde publikoa izanik, NEIKERek ardura sozialak ditu eta gizartearekiko eredu izateko konpromisoa ere beregain hartzen du.

Gure hizkuntza ofizialen normalizazio bidean Zuzendaritza nagusiak hurrengo printzipioak ditu:

- **Zerbitzu-hizkuntzari** dagokionez, herritarrek eskubide linguistikoak dituzte. NEIKERi dagokio herritarren hizkuntza hautua errespetatzea eta eskubide linguistikoak bermatzea.
- **Lan-hizkuntza** geroz eta gehiago euskara izan dadin lan egingo da NEIKERen. Bai maila informalean, formalean eta baita hizkuntza tekniko mailan ere.
- **Ezagutza-maila.** Langileen ezagutza handiagotzeko diru-laguntzak jasota daude Langile-hitzarmenean eta sustapen-kanpainak abian jarriko dira lantzean behin.
- **Ahozko zein idatzizko erabilera** sustatzeko ekimenak abian jarriko dira.
- **Harrera protokoloan** lankideek zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza aldetik dituzten betebeharrak eta eskubideak azalduko dira, hasiera hasieratik. Eta NEIKERek euskarari eman nahi dion garrantzia eta lekua jasoko da bertan.
- **Euskara teknikoa.** Euskararekiko konpromisoa euskara tekniko mailara eramango du NEIKERek, zientziaren euskarazko dibulgazioa egiteko konpromisoa ere beregain hartuz.
- **Sortze-hizkuntza.** Euskaraz sortzea sustatuko da, teknologiak noranzko ezberdineko itzulpen automatikoak posible egiten duen neurri berean.
- **Talentua ongi etorria** da NEIKERen. Euskaraz ez dakien talentua ere ongi etorria da. Azken honek sor dezakeen inpaktu linguistikoak kudeatzea erronka da NEIKERen, baita eleonitza diren taldeak sortzeko ahalegina egitea ere, gizartearen eskakizunei erantzuna eman ahal izateko.
- **Azpiktratatutako enpresei eta hornitzaileei** kolaborazioa eskatzen zaie, bereziki, zerbitzu- eta lan-hizkuntzan eragina duen zerbitzua ematen duten kasuetan.
- **Betekizun legalak.** Euskararen Dekretuak NEIKERi eragingo dion neurrian, betekizun legeletara moldatzeko bidea egingo da. Ardura konpartituetako gure egiturari nahitaezkoa izango da ezagutza eta erabilera zeharkakoa izatea eta euskarazko eskakizunak horretara moldatzea.
- **Bikaintasuna.** Kudeaketan eta maila zientifikoan bikaintasun eredu jarraitzeaz gain, hizkuntza politikan ere bikaintasuna bilatzea erronka da. BIKAIN ziurtagiriak proposatutakoetan aurrera egiteko konpromisoa daukagu NEIKERen.
- **Euskararen kudeaketa** Kudeaketa Orokorrean errotzea erronka da. Euskararen kudeaketarako Euskara Batzordea, Plan Estrategikoa, Euskara Planak, Hizkuntza Irizpideak eta euskara dinamizatzaile figura daude, ekintzak aurrera eramateko aurrekontuz doitu.
- **Kide konprometitu eta inplikatuak.** NEIKERen badaude euskara gaietan militanteak diren hainbat kide. Zuzendaritza konprometituak kide hauen beharra azpimarratzen du, elkarrekin eraikin dezagun guztion hobe-beharrerako izango den normalizazioaren bidea.

Ondorioz, NEIKEReko Zuzendaritza batzordeak indarreko legeria eta araudia betez, eskura dituen eta beharrezkoak diren baliabideak emateko konpromisoa hartzen du hizkuntza ofizialen normalizazioaren bidean lanean jarraitzeko eta "Zuzendaritza eredu" leloa beregain hartzen du. Eta lantalde osoari eskatzen dio hizkuntzen normalizazioaren bidean inplikatu dadila, gure erakundeak hobetzeko duen ahalmena gauzatu ahal izateko.

Derion 2023ko maiatzaren 18a

**NEIKER**  
MEMBER OF  
BASQUE RESEARCH  
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Zuzendaritza nagusia

Campus Agroalimentario de Arkaute  
N-104, km. 355  
E - 01192 Vitoria-Gasteiz (Araba)  
Tel: (+34) 945 121 313

Leire Barañano

